

LAN BATZORDE IREKIAK**TALDEA****OBRA BATZORDEA****IRAUPENA****2 ordu****EGUNA****2017-12-19****GAIA****DEIALDIA****PARTE HARTZAILEAK**

Endika Igarzabal

Iñaki Etxezarreta

Felix Maiz

Asier Osinalde

Nikolas Igarzabal

Iñaki Oiarbide

ERABAKIAK**GAIA****EKINTZAK****ARDURA
DUNA****NOIZKO****ARGITERIA**

- Eskolan eguzki plakak jartzea planteatzen zen, autonomia energetikoa irabazteko.
- Orain daukagun moduan, urtean 8000 euro gastatzen ditu udalak eskolako eraikinean.
- Datorren urtera begira landuko da gai hau zehatzago.

AZTIRIKO TABERNA

- Sukaldeko estolderia berritu behar izan da, egoera txarrean zegoelako. Horretaz gain, pintatu eta altzariren bat aldatu da.
- Urtarrilean jabe berriek irekiko dute.

HERRIBIDEAK

- Obrak eginda daude, eta orain bizilagunek beraien zatia ordaintzea falta da.

MINATAKO BIDEA

- Nahiz eta ofizialki ez den erantzunik jaso, jakinarazi digute aldundiak ez duela Minako bidea bere gain hartuko.
- Mutiloako udalarekin elkarlanean, txosten bat prestatu da bideak inguruan duen garrantzia azpimarratuz, dirulaguntza eskaeretan erabiltzeko.

EIT INSPEKZIOA

- Ez dago nobedaderik.

OSTATU

- Laguntza gehigarri bat aterako dutela jakinarazi ziguten. Horregatik, 2018an sartzeari aurreikusitako zenbait lan aurtengo zatian sartzeko aukera izan da.
- Segurtasun aldetik, sukaldeko aspirazio sistema berritu da, eta dendatxoa egokitzen ere hasi da.

ALEGI AUZOA	<ul style="list-style-type: none"> • Bidegorria eta oinezkoentzako pasabideren inguruan ez dago berririk. Aldundiaren eskumena da. • Espalioak babesteko aktuzio txiki batzuk egingo dira, bide ondoko ingurua babestuz eta txukunduz. 		
LANDA GARAPENA	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago berririk. 		
DATOZEN OBRA POSIBLEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Autobus geltokia Baltsaleku inguruan. Baimena eman digu aldundiak eta urtarrilean egingo da. • Orbeldegin trenbide ondoko bide zati bat (herri bidea). 2018 urte hasieran egiteko asmoa dago. Aurrekontua badaukagu iada. 		
XX.en RALLYSPRINTA	<ul style="list-style-type: none"> • Herritar batzuen artean tanteatu zen, eta guztien jarrera ezkorra ikusirik, ezezkoa erabaki zen, bilera egin beharrik gabe. 		
OSTATU AURREKO APARKALEKUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Marra horiak pintatuko dira aparkatzea debekatuz, eta baita seinaleak ere. • Baimena lortu da, eta auzolanean margotzea da asmoa.. 		
PANEL INFORMATIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Bi panel informatibo erosi dira udaleko berriak jartzeko. Herrigunean eta Aztirin jarriko dira. 		
TROIAKO MEATEGIA	<ul style="list-style-type: none"> • Aldundian bilera bat eduki dugu gaur gai honen inguruan, Mutiloako udalarekin batera. • Gabiriak alegazio bat jarri zuen beraiek aurkeztutako proiektuari, urmaela tapatzea soilik zuelako helburu, eta ez inguru guztia berreskuratzea. • Esan digutenez, beste proiektu bat prestatuko dute inguru osoa kontuan hartuz, 2018 urte erdirako. • Hezegunea mantentzea da udalaren helburua, eta hori nola egin azertu beharko da. Urmaela atzerago mugitzea aukera bat izan liteke eta aldundiak bideragarri ikusten du. 		
AUZOLANAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ardantzakoa egin zen, eta oso ondo. • Minatako bidea: abenduak 29 		

Hurrengo bilera: Otsailak 27, 19:00tan